Proposamena bozkatu eta emaitza hau izan da: aldeko 16 boto, PNV, PP, PSE-EErenak, eta kontrako 8, GUKenak eta EH Bildurenak eta 1 abstentzio, Ciudadanosena.

A continuación se somete la propuesta a votación obteniendo el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, 8 votos en contra, GUK, EH Bildu, 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz eta Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, gehiengoz honako hau erabaki da:

En consecuencia, y a propuesta de la Alcaldía-Presidencia, por mayoría se acordó:

**Lehenengoa**.- Langileen plantillan behin-behineko langile izaera duten honako lanpostu hauek sortuko dira:

- Alkatetzako hiru aholkulari. (Lanpostuaren ID 1548, 1549 eta 1550).
- Osoko Bilkura osatzen duten eta gutxienez lau udalkide dituzten udal-taldeentzako aholkulari bat, edo bi lanaldiaren % 50ean bada. (Lanpostuaren ID 1553, 1552, 1554, 1551) .

**Primero**.- Crear, en la plantilla de personal, con el carácter de personal eventual las plazas siguientes:

- Tres de Asesores/as de Alcaldía. (Id plaza 1548, 1549 y 1550)
- Un Asesor para cada uno de los grupos políticos que integran el pleno y que cuentan con un mínimo de 4 corporativos, o dos asesores al 50% de jornada. (ID plaza 1553, 1552, 1554, 1551)

- Alkatetzako administrari bat. (Lanpostuaren ID 1555).

- Bost administrari, horietako bakoitza udalkide bi edo gehiago duen udal-talde bakoitzari atxikiko zaio. (Lanpostuaren ID 1556, 1557, 1558, 1559)

- Administrari bat lansaioaren % 50ean, udalkide bi baino gutxiago dituzten talde politikoentzat. (Lanpostuaren ID 1562)

Erabaki honek aurretik zeuden behin-behineko langileen plantillako lanpostuak automatikoki amortizatzea dakar. Hain zuzen ere, ID hauek dituzten lanpostuak: 1415, 1416, 1414, 1423, 1424, 1425, 1519, 1427, 1426, 1442, 1443, 1418, 1419, 1420 eta 1421.

**Bigarrena**.- Alkatetza Arlora atxikitako eta zerbitzu orokorretara esleitutako lanpostuen zerrendara honako hauek gehituko dira:

- Alkatetzako hiru aholkulari.

- Osoko Bilkura osatzen duten eta gutxienez lau udalkide dituzten udal-taldeentzako aholkulari bat, edo bi lanaldiaren % 50ean bada.

- Alkatetzako administrari bat.

- Bost administrari, horietako bakoitza udalkide bi edo gehiago duen udal-talde bakoitzari atxikiko zaio.

- Administrari bat lansaioaren % 50ean, udalkide bi baino gutxiago dituzten talde politikoentzat.

- Un administrativo/a de Alcaldía. (Id. Plaza 1555)

- Cinco administrativos/as adscritos/as, cada uno de ellos, a cada uno de los grupos políticos municipales que cuenten con dos corporativos o más. (Id. Plaza 1556, 1557, 1558, 1559)

- Un administrativo al 50% de la jornada para grupos politicos con menos de dos corporativos. (Id. Plaza 1562)

Este acuerdo supone la automatica amortización de las plazas de plantilla de personal eventual existentes anteriormente. En concreto, las plazas con Id1415, 1416, 1414, 1423, 1424, 1425, 1519, 1427, 1426, 1442, 1443, 1418, 1419, 1420 y 1421.

**Segundo**.- Incorporar en la Relación de Puestos de Trabajo, adscritos al Area de Alcaldía, asignados a servicios generales, los siguientes:

- Tres de Asesores/as de Alcaldía.

- Un Asesor para cada uno de los grupos políticos que integran el pleno y que cuentan con un mínimo de 4 corporativos, o dos asesores al 50% de jornada.

- Un administrativo/a de Alcaldía.

- Cinco administrativos/as adscritos/as, cada uno de ellos, a cada uno de los grupos políticos municipales que cuenten con dos corporativos o más.

- Un administrativo al 50% de la jornada para grupos politicos con menos de dos corporativos.

Erabaki honek aurretik zeuden behin-behineko langileen plantillako lanpostuak automatikoki amortizatzea dakar. Zehazki, kode hauek dituzten lanpostuak: 12011, 22011, 32011, 92011, 102011, 112011, 82011, 42011, 52011, 62011 eta 72011.

Este acuerdo supone la automatica amortización de las puestos de la RPT de personal eventual existentes anteriormente. En concreto, Los puestos con códigos: 12011, 22011, 32011, 92011, 102011, 112011, 82011, 42011, 52011, 62011 y 72011.

Bi aholkulari lansaioaren % 50ean izateko eskaera egiten bada (legitimatutako edozein talde politikok egiten badu), automatikoki aldatuko da langileen lanpostuen zerrenda eta udal-taldearen eskaeraren arabera egokituko da. Gainera, Osoko Bilkurari horren berri emango zaio.

La solicitud (de cualquiera de los grupos políticos legitimados) de optar por dos asesores/as al 50% de la jornada, supondrá la automática modificación de la RPT ajustándose la misma a la solicitud del grupo municipal y dándose cuenta al Pleno municipal.

Erabaki honen I. eranskin gisa erabaki honen xede den behin-behineko langileen lanpostuen zerrenda erantsi da:

Se adjunta como Anexo I al presente acuerdo la Relación de Puestos de Trabajo del personal eventual objeto del presente acuerdo.

**Hirugarrena**.- Behin-behineko langileentzat ordainsari hauek ezarriko dira:

**Tercero**.- Establecer las siguientes retribuciones para el personal eventual

Aholkulari kategoriako behin-behineko langileen ordainsaria 53.720,94 euro gordinekoa izango da, hileko hamalau lansaritan banakatuta.

La retribución del personal eventual con categoría de Asesor/a será de 53.720,94 euros brutos, distribuida en catorce pagas mensuales.

Administrari kategoriako behin-behineko langileen ordainsaria 29.980,57 euro gordinekoa izango da, hileko hamalau lansaritan banakatuta.

La retribución del Personal eventual con categoría de administrativo/a de Alcaldía será de 29.980,57 €, distribuida en catorce pagas mensuales.

Administrari kategoriako behin-behineko langileen ordainsaria 27.839,70 euro gordinekoa izango da, hileko hamalau lansaritan banakatuta.

La retribución del personal eventual con categoría de administrativo/a será de 27.839,70 € brutos, distribuida en catorce pagas mensuales.

Aurreko paragrafoetan ezarritako ordainsariak eragina izango du dagokion izendapena egiten den unetik aurrera; legearen arabera, Alkatetza-Udalburutzari dagokio hori.

Las retribuciones fijadas en los párrafos anteriores surtirán efecto desde la fecha del oportuno nombramiento que la legislación atribuye a la Alcaldía-PresIdencia.

**Laugarrena**.- Erabaki hau oso-osorik argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Gainera, udaleko webgunean eta iragarki-taulan iragarriko da.

**Cuarto**.- Publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia el presente acuerdo, de forma íntegra, así como anunciarlo en el Tablón de anuncios y en la página web municipal.

**Bosgarrena**.- Alkateari eskumena emango zaio bere karguaz baliatuz nahi beste neurri hartzeko, erabaki hau eraginkortasunez bete dadin.

**Quinto**.- Se faculta al Alcalde a fin de que en el ejercicio de su cargo pueda adoptar cuantas medidas resulten necesarias para el cumplimiento efectivo del presente Acuerdo.

## I.ERANSKINA / ANEXO I

### Behin-behineko langileentzat erreserbatutako lanpostuen zerrenda
### Relación de Puestos de Trabajo reservados al Personal Eventual

| Lanpostu zk. Nºpuesto | Izena denominación | S/N | Adm Adm | Behin-behinekoa prov | Eskala escala | Azpita Idea Subgr. | Ordainsaria Retribución | H E pl | DD Fecha precep. | Titulazioa titulación | Arloa Area | Lantokia Centro trabajo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8198 | Alkatetzako aholkularia Asesor Alcaldía | | | | | | 53.720,94 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8199 | Alkatetzako aholkularia Asesor Alcaldía | | | | | | 53.720,94 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8200 | Alkatetzako aholkularia Asesor Alcaldía | | | | | | 53.720,94 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8203 | Udal-taldearen aholkularia Asesor grupo municipal | | | | | | 53.720,94 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8202 | Udal-taldearen aholkularia Asesor grupo municipal | | | | | | 53.720,94 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8204 | Udal-taldearen aholkularia Asesor grupo municipal | | | | | | 53.720,94 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8201 | Udal-taldearen aholkularia Asesor grupo municipal | | | | | | 53.720,94 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8205 | Alkatetzako administraria Administrativo/a Alcaldía | | | | | | 29.980,57 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8206 | Udal-taldeko administraria Administrativo/a | | | | | | 27.839,70 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios | Udaletxea Casa Consistorial |

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | grupo municipal | | | | | | | | | | Generales | |
| 8207 | Udal-taldeko administraria Administrativo/a grupo municipal | | | | | | 27.839,70 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8208 | Udal-taldeko administraria Administrativo/a grupo municipal | | | | | | 27.839,70 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8209 | Udal-taldeko administraria Administrativo/a grupo municipal | | | | | | 27.839,70 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8210 | Udal-taldeko administraria Administrativo/a grupo municipal | | | | | | 27.839,70 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |
| 8211 | Udal-taldeko administraria % 50 Administrativo/a grupo municipal 50% | | | | | | 13.919,85 | | | | Zerbitzu orokorrak Servicios Generales | Udaletxea Casa Consistorial |

## 81.- KORPORAZIOKO KIDEENTZAKO ETA UDAL TALDE POLITIKOETAKO KIDEENTZAKO KALTE-ORDAINAK ETA ORDAINKETAK ONESTEA.

Proposamena irakurri ondoren, alkateak adierazi du GUKen zuzenketa bat dagoela.

Iñaki Amorrortuk zuzenketa irakurri du:

*"GUKen aburuz, korporazioaren soldatak ordaintzeko aurrekontua Getxoko diru-kutxarentzako gastu irrazionala da. Uste dugu, aurrekontuaren zati hau guztiok ezagutzen dugun gizarte errealitatearekin bat datozen soldata arrazional batzuetara egokitu beharrean, politika profesionalizatzea eta osoko bilkura osatzen duten kideetako askoren erosotasuna baino ez dela bilatzen.*

*GUKen iritzia da alkateak kontuan hartu beharko lukeela gaur egungo krisi larria eta liberazioei dagozkien soldatak ehuneko handi batean jaitsi beharko lituzkeela; eta ez Getxok adina biztanle duten udalerrietako*

## 81.- APROBACIÓN DE RETRIBUCIONES E INDEMNIZACIONES A FAVOR DE LOS MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN Y DE LOS GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES.

Tras darse lectura a la propuesta el Alcalde manifiesta que hay una enmienda de GUK.

Iñaki Amorrortu da lectura a la siguiente enmienda:

*"GUK entiende que el presupuesto en sueldos de la corporación es un gasto irracional para las arcas del municipio de Getxo. Creemos que solo se busca mantener la profesionalización de la política y acomodamiento de gran parte de los miembros que componen el pleno en lugar de ajustar esta parte del presupuesto a unos salarios más racionales acordes con la realidad social que todos y todas conocemos.*

*GUK entiende que el alcalde debiera tener en cuenta la profunda crisis en la que nos encontramos inmersos en la actualidad y proceder a una reducción de los sueldos atribuidos a las liberaciones en un*

*zinegotzientzat legeak baimentzen duen soldata maximoa esleitu. Oraingo ordainsariak onartzea astakeriatzat eta udalerriko diru-kutxari bidegabeko sarraskitzat jotzen dugu.*

*porcentaje sustancial en lugar de asignar los máximos sueldos permitidos por la ley para concejales de ayuntamientos con una población equivalente a la de Getxo. Consideramos que aceptar las actuales retribuciones es un disparate y una auténtica sangria injustificada a las arcas del municipio.*

*Hori dela eta, alkateari galdera bat egin nahiko genioke: Zeintzuk dira liberazio kopuruaren inguruko proposamen horretan xedatutako banaketa bidegabeko eta desorekatuaren arrazoiak? Eta Alderdi Popularrak GUKek edo EH Bilduk baino zinegotzi bat gehiago bakarrik izanda, zergatik jasotzen ditu besteek jasotzen dituzten liberazioen bikoitza? Eta gainera, banaketa horrek ez du akordio ekonomiko bat bermatzen eta Getxoko biztanleek hautetsontzietan adierazitako nahiarekin ez dator bat.*

*Llegados a este punto, tenemos una pregunta que nos gustaría realizar al alcalde: a qué razones obedece este injusto y desequilibrado reparto dispuesto en dicha propuesta referida al número de liberaciones, y que concede el doble de las mismas al Partido Popular teniendo tan solo un concejal más que GUK o EH Bildu. Y que no responda a garantizar un acuerdo económico y que no concuerda con la voluntad de la población de Getxo expresada en las urnas.*

*Ondorioz, korporazio honek GUKen helburua, hau da, korporazioko gastua % 50 murriztea, aintzat hartzea proposatzen dugu."*

*Por tanto, proponemos que esta corporación asuma el objetivo de GUK que es un ahorro total del gasto corporativo alrededor de un 50%."*

Koldo Iturbek esan du zuzenketa hori atzo ezagutu zutela eta berriro ere eskatzen die proposamenak lehenago aurkezteko, balioetsi ahal izateko. Adierazi du kontrako botoa emango dutela, lortu duten akordioan oinarrituta, eta aurreko legegintzaldian ordainsariak murriztu egin zirela, aurreko beste ekitaldi batzuen aldean eta proposamena Eudelen irizpideekin bat datorrela.

Koldo Iturbe replica que esta enmienda la conocieron ayer y vuelve a solicitarles que las propuestas se presentan con mayor antelación para poder ser valoradas. Indica que votarán en contra en base al acuerdo al que han llegado y que en la legislatura precedente las retribuciones se redujeron respecto a otros ejercicios anteiores y que la propuesta está de acuerdo con los criterios de Eudel.

Iñaki Amorrortuk galdetu du zer proportzionaltasun-irizpide erabili den proposamenean, izan ere, ez da bat bera ere existitzen.

Iñaki Amorrortu pregunta qué criterios de proporcionalidad se han utilizado en la propuesta ya que no existe ninguno.

Koldo Iturbek esan du negoziazio-prozesua ireki zela taldeekin eta akordioa lortu zela talde batekin eta hori

Koldo Iturbe replica que se abrió un proceso de negociación con los grupos y

dela osoko bilkurari aurkezten zaion proposamena.

Enrique Pradak hitza hartu du eta adierazi du nabaritzen dela herritarren borondatearen ondoriozko proportziozko banaketaren asmo onak ez direla proposamen honetan betetzen.

GUKen zuzenketa bozkatu da, eta ukatu egin da aldeko 8 botorekin, EH Bildu, GUK taldeenak, kontrako 16 botorekin, EAJ, PP, PSE-EErenak eta 1 abstentziorekin, Ciudadanosena.

EH Bilduren zuzenketa. Oier Iturraldek irakurri egin du:

*"Alkatearen arduraldi osoa eta Gobernu Batzordearen 4 kiderena, bozeramaile bat alderdi bakoitzeko eta zinegotzi 1na gehiago 4 edo zinegotzi gehiagoz osatutako oposizioko talde bakoitzeko eta zinegotzi 1arduraldi erdiarekin, 8 edo zinegotzi gehiagoz osatutako talde bakoitzeko.*
*Ondorioz, honakoa litzateke EH Bilduk proposaturiko zinegotzi liberatuen kopurua taldez tale*
*EAJ: alkatea + Gobernu batzordeko 4 + bozeramale 1 + zinegotzi 1*
*PP: bozeramale 1 + zinegotzi 1*
*GUK: bozeramale 1 + zinegotzi 1*
*EH Bildu: bozeramale 1 + zinegotzi 1*
*PSE-EE: bozeramale 1*
*Ciudadanos: bozeramale 1*
*Orotara: 15 zinegotzi*

*Ordainsariei dagokionez, gaurko ordainsarien gaineko % 25eko murrizketa proposatzen dugu kargu eta dieta guztietan."*

Proposamena justifikatzeko esan du EAJ, PP eta PSE-EE oso azkar heltzen

que se llegó a un acuerdo con un grupo y que esa es la propuesta que se presenta al Pleno.

Enrique Prada interviene para manifestar que es evidente que las buenas intenciones del reparto proporcional derivado de la voluntad de los vecinos no se cumplen en esta propuesta.

Se somete a votación la enmienda de GUK siendo rechazada al obtener 8 votos a favor, GUK, EH Bildu, 16 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE, 1 abstención, Ciudadanos.

Enmienda de EH Bildu. Oier Iturralde da lectura a la misma:

*"Dedicación completa del Alcalde, cuatro miembros de la Junta de Gobierno y un portavoz por cada partido político, y además un concejal más para cada grupo de la oposición con cuatro o más concejales y un concejal a media dedicación para cada grupo con ocho o más concejales.*
*Por lo tanto, el número de concejales liberados propuesto por EH Bildu desglosado por grupos sería este:*
*PNV: Alcalde + cuatro miembros de la Junta de Gobierno + un portavoz + 1 concejal.*
*PP: un portavoz + un concejal.*
*GUK: un portavoz + un concejal.*
*EH Bildu: un portavoz + un concejal.*
*PSE-EE: un portavoz.*
*Ciudadanos: un portavoz.*
*Total: quince concejales.*

*Respecto a las retribuciones, proponemos que se haga una reducción del 25% sobre todos los cargos y dietas."*

Justifica la propuesta en que el PNV, PP

direla akordioetara, beren poltsikoak hobetzeko bada. Ez da lehenengo aldia Euskal Herrian horrelako akordio-motetara heldu direna. Akordioak egin izan dituzte ikaragarrizko soldatak lortzeko; alkatearen eta zinegotzien soldaten zenbatekoak nabarmendu ditu, bere ustez lotsagarriak, bai eta liberatutako zinegotzien esleipena ere. Gogorarazi du herritarren borondatea hauteskundeetan islatu dela eta proportzio hori proposamenetan mantendu beharko litzatekeela. Amaitzen esan du EH Bilduk aurkezten duen proposamenarekin 500.000 euro inguru aurreztuko lituzketela urtean, eta diru hori gastu sozialerako erabili beharko litzatekeela.

y PSE-EE llegan rápidamente a acuerdos para mejorar sus bolsillos. No es la primera vez que en Euskalherria se llegan a acuerdos de este tipo. Han llegado a acuerdos para acceder a unos sueldos escandalosos, insistiendo en las cuantías de los sueldos del Alcalde y concejales que califica de vergonzosos así como también la asignación de los concejales liberados. Recuerda que la voluntad de los vecinos ha quedado reflejada en las elecciones y esa proporción debería mantenerse en las propuestas. Finaliza indicando que con la propuesta que presenta EH Bildu se ahorrarían unos 500.000 euros al año y ese dinero debiera dedicarse a gasto social.

Zuzenketa bozkatu da, eta ukatu egin da aldeko 4 botorekin, EH Bildurenekin, kontrako 16 botorekin, EAJ, PP, PSE-EErekin eta 5 abstentziorekin, Ciudadanos eta GUK taldeenekin.

Sometida la enmienda a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu, 16 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE, 5 abstenciones, GUK y Ciudadanos.

Proposamena bozkatu eta emaitza hau izan da: aldeko 16 boto, PNV, PP, PSE-EErenak, eta kontrako 8, GUKenak eta EH Bildurenak eta 1 abstentzio, Ciudadanosena.

A continuación se somete a votación la propuesta que obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, 8 votos en contra, GUK, EH Bildu, 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz eta Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, gehiengoz honako hau erabaki da:

En consecuencia, y a propuesta de la Alcaldía-Presidencia, por mayoría se acordó:

**Lehenengoa**.- Ondoko udal karguei dedikazio araubide hau esleitzea:

**Primero**.- Asignar el siguiente régimen de dedicación a los cargos municipales que se indican:

| KARGUA / CARGO | DEDIKAZIOA/DEDICACION |
|---|---|
| ALCALDE-PRESIDENTE | OSOA EXCLUSIVA |
| MIEMBROS DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL (HASTA UN MAXIMO DE SEIS) | OSOA EXCLUSIVA |

| | |
|---|---|
| PORTAVOZ TITULAR DE GRUPO MUNICIPAL (UNO/A POR GRUPO MUNICIPAL) | OSOA EXCLUSIVA |
| GRUPO MUNICIPAL ENTRE CINCO Y OCHO MIEMBROS DOS CORPORATIVOS | OSOA EXCLUSIVA |
| COORDINADOR DE GRUPO POLITICO MUNICIPAL DE ENTRE 3 Y 4 MIEMBROS | PARTZIALA/ PARCIAL (%50) |
| CONCEJALES DELEGADOS DE SERVICIO DEPENDIENTE DE UN AREA | PARTZIALA/ PARCIAL (%50) |

Udaleko kideei jakinaraziko zaie dedikazio-araubidearen esleipena egiteko ezinbestekoa dela Alkatetza-Udalburutzaren ebazpenaren bidez dedikazioa aitortuta daukan udal kideak dedikazio hori berariaz onartzea, argitaratzeko eta berri emateko ondorioetarako.

Informando a los Sres corporativos que la asignación del régimen de dedicación requiere la aceptación expresa por el/la corporativo/a que la tenga reconocida en resolución de la Alcaldía-Presidencia, a los efectos de su publicación y dación de cuenta.

Dedikazio-araubide oso eta partzialean lan egiten duten karguek ezin izango dute jaso inolako dietarik udaleko organoetara edo udalaren administrazio instituzionaleko organoetara joateagatik.

Los cargos que ejerzan sus funciones en régimen de dedicación plena y parcial no podrán percibir ningún tipo de dieta por asistencia a órganos del ayuntamiento o de su administración institucional.

Dedikazio partzialeko araubidean betetzen diren karguek gutxieneko dedikazio bat daukate. Ondoko hau izango da: udal langileen urteko lansaio normalizatuaren erdiaren baliokidea.

Los cargos que se ejercen en régimen de dedicación parcial comportan una dedicación mínima necesaria de un porcentaje de dedicación equivalente a la mitad de la jornada anual normalizada de los empleados municipales.

**Bigarrena**.- Aurreko legegintzaldian, 2011-2015, zegoen ordainsarien araubidea mantentzea, Alkatetza-Udalburutzaren ordainsaria legeak ezarritako zenbateko berriei egokituz:

**Segundo**.- Mantener el régimen de retribuciones existente en la legislatura anterior 2011-2015, adecuando la retribución de la Alcaldía-Presidencia a las nuevas cuantías establecidas legalmente:

| KARGUA CARGO | HILEKO ORDAINSARIA RETRIBUCION MES | URTEKO ORDAINSARIA RETRIBUCION AÑO |
|---|---|---|
| ALKATEA ALCALDE | 6.519,75 € | 78.237,05 € |

| | | |
|---|---|---|
| GOBERNU BATZARREKO ZINEGOTZIA<br>CONCEJAL JUNTA DE GOBIERNO | 5.510,19 € | 66.122,28 € |
| TALDE POLITIKOAREN BOZERAMAILE DEN ZINEGOTZIA<br>CONCEJAL PORTAVOZ GRUPO POLITICO | 5.510,19 € | 66.122,28 € |
| ZINEGOTZIA<br>CONCEJAL | 4.332,04 € | 51.984,48 € |
| ZINEGOTZIA, % 50<br>CONCEJAL 50% | 2.166,02 € | 25.992,24 € |

Ordainsari horiek urtero eguneratuko dira, Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak eguneratzen diren moduan.

Estas retribuciones se actualizarán anualmente de acuerdo a como lo hagan las retribuciones de los cargos del Gobierno Vasco.

Aipatutako zenbatekoetan ez dira sartzen hiru urtekoen zenbatekoak.

En las cuantías mencionadas no se incluye el importe de los trienios que, en su caso, correspondan.

Erabaki honetan ezarritako ordainsariak 2015eko uztailaren 1etik aurrera hasiko dira aplikatzen.

Las retribuciones fijadas en el presenta acuerdo, comenzarán a aplicarse a partir del día 1 de julio de 2015.

**Hirugarrena**.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren iragarki oholean eta udalaren webgunean argitaratuko da.

**Tercero**.- Proceder a la publicación del presente acuerdo, en el Boletín Oficial de Bizkaia, en el tablón de anuncios de la Corporación y en la página web del ayuntamiento.

**Laugarrena**.- Alkateari eskumena ematen zaio bere karguaz baliatuz nahi beste neurri hartzeko, Akordio hau eraginkortasunez bete dadin.

**Cuarto.**- Se faculta al Alcalde a fin de que en el ejercicio de su cargo pueda adoptar cuantas medidas resulten necesarias para el cumplimiento efectivo del presente Acuerdo.

Enrique Pradak GUKen botoa azaldu du; adierazi du bere ustez gobernu-taldearen jarrera argi geratu dela eta kaleko errealitatea dela birmoldaketak, erreforma negatiboak, kaleratzeak eta antza denez maila politiko tradizionalera sekula heltzen ez diren murrizketak. GUKek nahi du hori guztia alda dadin, baina ezingo da aldatu, baldin eta beste talde batzuentzako helburua bada beren bizimodua eta alderdi politikoen

Enrique Prada explica el voto de GUK manifestando que cree que la postura del equipo de gobierno ha quedado clara y que la realidad de la calle es la existencia de reconversiones, reformas negativas, despidos y restricciones que parece que nunca llegan a la clase política tradicional y GUK quiere que esto cambie pero no va a poder cambiar mientras que para otros grupos el objetivo sea garantizar su modo de vida y la financiación de los partidos

finantzaketa bermatzea.

Iñaki Gamerok saioa utzi du.

**82.- IÑAKI GAMERO DELGADO JAUNAREN BATERAGARRITASUNA ONARTZEA.**

Proposamena irakurri ondoren, alkateak esan du GUKek puntu honen eta hurrengoaren gaineko zuzenketa aurkeztu duela, baina haren edukia ikusita, ezin dela halakotzat hartu; esan du zuzenketa barik, proposamenaren inguruan duen jarreraren justifikazioa dela; izan ere, dedikazio partziala planteatu dute, eta hori ezinezkoa da, indarrean dagoen legeriari jarraiki, kontuan hartuta aztertzeko jartzen den eskabidea udalkideak eskatzen duena dela eta dedikazio esklusiboarekiko bateragarritasunari dagokiola.

Eduardo Andradek hitza hartu du eta adierazi du eskaera dela bateratzeko, legeak ezartzen duen bezala, eta hala egiten dute kontziente izanik beren lan profesionalak ez duela kalterik eragingo udalkide den aldetik duen lanean. Bere ustez, politikari guztiek eduki beharko lukete lan-esperientzia, eta bere ustez positiboa da lan egitea eta, aldi berean, politika egitea, eta bateragarritasuna ez ematea izango litzateke politikaren profesionaltasunaren alde egitea eta, bere kasuan, politikan dedikazio esklusiboak ekarriko luke bere bulegoa ixtea. Adierazi du azken 8 urteotan lan korporatiboa abokatu-lanarekin bateratu duela, eta ez dela inolaz ere zinegotzi-izaeraz aprobetxatu, lanbidean jarduteko. Gogorarazi du bateragarritasuna izan duen denboran

políticos.

Iñaki Gamero abandona la sesión.

**82.- RECONOCIMIENTO DE COMPATIBILIDAD DE IÑAKI GAMERO DELGADO.**

Tras darse lectura a la propuesta, el Alcalde indica que GUK respecto a este punto y el siguiente había presentado una enmienda pero que, atendiendo al contenido de la misma, no tiene dicha consideración sino que más bien es una justificación de su postura respecto a la propuesta ya que planteaban una dedicación parcial, cuestión que es imposible con la legalidad vigente, teniendo en cuenta que la solicitud que se somete a consideración es la que formula el corporativo y que se refiere a una compatibilidad con dedicación exclusiva.

Eduardo Andrade interviene para manifestar que la solicitud es para compatibilizar, tal como lo exige la ley, y lo hacen conscientes de que su labor profesional no causará detrimento a su labor de corporativo. Cree que todos los políticos debían de tener previamente una experiencia laboral y cree positivo trabajar a la vez que dedicarse a la política y no conceder la compatibilidad sería apostar por la profesionalización de la política y que en su caso la dedicación exclusiva en la política supondría el cierre del despacho. Manifiesta que en los últimos 8 años que ha compatibilizado su labor corporativa con la abogacía ´ésta ha sido residual y no se ha aprovechado en absoluto de su condición de concejal para su ejercicio profesional. Recuerda que en el tiempo que ha estado

udal osoko bilkuran hitza sarrien hartu duen zinegotzia izan dela.

compatibilizado ha sido el concejal que más intervenciones ha tenido en el Pleno municipal.

Paula Amievak adierazi du ez duela uste bateragarritasunik egon litekeenik dedikazio esklusiboarekin; izan ere, bateragarritasuna egoteko, dedikazio partzialak egon beharko luke edo, behintzat, soldataren zati bati uko egitea.

Paula Amieva manifiesta que no cree que pueda haber compatibilidad con un régimen de dedicación exclusiva ya que para mantener una compatibilidad cabría una dedicación parcial o al menos renunciar a parte del salario.

Ibon Rodríguezek adierazi du Andrade jaunaren hitzak harrituta utzi duela; izan ere, puntu berean erabat kontrajarrita dauden argudioak erabili ditu. Gogorarazi du EAJrekiko akordioan, PPk hiru zinegotzi liberatu lortu dituela, eta hiru horietatik eskatzen duela biri jarduera pribatuarekin bateratzeko. Esan du PPk lehen adierazten zuela oposizioaren lana egiteko aholkulariak eta laguntza falta zirela, eta, orain, ordea, denboraren zati bat lanbideko jardueran emateko aukera eskatu du, herritarrekiko harremanei eusteko justifikazioa baliatuz. Gogorarazi du lanbiderik ez duten kasu korporatibo askotan -eskatzaileen kasua bezala-, beren lan korporatiboak ekonomia- eta lanbide-eskubideen galera ekarri dietela. Ez du legezkotasuna eztabaidan jartzen; lotsagarria dela planteatzen du. Ados dago politikariak aurreko lanetatik datozela eta jarduerari eutsi nahi badiote ez dutela zertan liberazioa eskatu edo liberazio partziala eskatu. Osoko bilkuran sarri hitza hartu izana dela eta, adierazi du osoko bilkura hilean behin dela, eta hileko gainerako egunetan zer gertatzen den galdetu du, eta berriro ere azpimarratu du ordainsarien zenbatekoa gehiegizkoa dela, eta bulegoa zabalik eduki nahi badu, dedikazio esklusiboari uko egiteko.

Ibon Rodríguez manifiesta su admiración por la intervención del señor Andrade ya que en el mismo punto utiliza argumentos absolutamente contradictorios. Recuerda que en el acuerdo con el PNV, el PP ha conseguido tres concejales liberados y de los tres piden que a dos se les compatibilice con su actividad privada. Manifiesta que el PP antes indicaba que para desarrollar la labor de la oposición hacían falta asesores y apoyos y ahora sin embargo pide la posibilidad de dedicar parte del tiempo a una actividad profesional con una justificación de mantener contacto con los vecinos. Recuerda que en muchos casos corporativos que no tienen profesiones como la de los solicitantes, su labor de corporativo les ha supuesto pérdidas de derechos económicos y profesionales. No discute la legalidad sino lo que se plantea estima que es vergonzoso. Está de acuerdo en que los políticos vengan de trabajos anteriores y que si quieren mantener la actividad pueden no asumir la liberación o asumir la liberación parcial. Respecto a sus muchas intervenciones en el Pleno manifiesta que el Pleno es un día al mes y pregunta que pasa el resto del mes y vuelve a insistir en que la cuantía de las retribuciones son exageradas y que si le interesa mantener abierto el despacho

que renuncien a una dedicación exclusiva.

Iñaki Amorrortuk esan du politikariak kalearekin lotzen dituenak gizarte-lanak direla, eta animatu du horiek egitera udalean denbora soberan badu.

Iñaki Amorrortu manifiesta que lo que vincula a los políticos con la calle son los trabajos sociales y le anima a que si le sobra tiempo en el ayuntamiento se dediquen a ello.

Santiago Sainzek esan du legez aurreikusi egiten dela eta eraginpean daudenek beren hautesleei eta herritarrei jakinarazi beharko dietela bateragarritasunaz egiten duten erabileraren gainean.

Santiago Sainz en esta cuestión manifiesta que legalmente es algo previsto y que los afectados deberán de responder tanto a sus electores como a los vecinos del uso que hagan de la compatibilidad.

Eduardo Andradek esan du talde batzuek jarraitzen dutela oposizioa egiten oposizioari berari. Gogorarazi du osoko bilkurako kontuak prestatzeak ere aztertzeko denbora ugari behar duela; izan ere, kontu guztiak aztertu behar dira eta bozeramaile batek lana du udalean bertan eta udaletik kanpo. Esan du sarritan kalean zinegotziekin egiten duela topo etxera doazenean eta bera ordu horietan bulegora doala eta ekonomikoki bulegoaren mende ez dagoenez, udaletik kobratzen duelako, sarritan doako zerbitzua ematen diela Getxoko herritarrei. Amaitzeko esan du jarduteko bateragarritasuna hondarra dela ia.

Eduardo Andrade manifiesta que hay grupos que siguen haciendo oposición a la propia oposición. Recuerda que preparar los asuntos del Pleno requiere también de mucho tiempo de estudio porque hay que analizar todas las cuestiones y un portavoz tiene trabajo tanto fuera como dentro del ayuntamiento. Manifiesta que muchas veces se cruza en la calle con concejales cuando van a su casa y él a esas horas va al despacho y que como no depende económicamente del despacho porque cobra del ayuntamiento muchas veces atiende gratuitamente a vecinos de Getxo. Finaliza insistiendo que la compatibilidad para el ejercicio es de carácter puramente residual.

Enrique Pradak Andrade jaunari aholkatu dio kritikak eta horien oinarriak onartzeko, eta esan dio hitza hartu duenean ez dituela udalkideak konbentzitu eta ez duela uste herritarrak konbentzituko dituenik.

Enrique Prada aconseja al señor Andrade que acepte las críticas y los argumentos que las sustentan indicándole que las intervenciones que ha realizado no han convenicido a los corporativos ni tampoco cree que convenzan a los vecinos.

Ibon Rodríguezek adierazi du osoko bilkuran ikusten duela PPk oposizio gisa agertu nahi duela, baina, ordea,

Ibon Rodríguez manifiesta que en el Pleno ve que el PP quiere parecer oposición pero sin embargo pacta con el

gobernu-taldearekin ituntzen duela udal-taldeen baliabide ekonomikoen eta pertsonalen banaketa. Onartu du aurreko batean hitza hartu duenean erratu egin dela eta erratu egingo dela sarritan etorkizunean, eta esan du EH Bilduko udalkideek ere udalaren barruan eta hortik kanpo lan egiten dutela eta ez bakarrik elkarteekin harremanetan jarriz, baita elkarteekin lan eginez ere. Bere ustez EH Bilduk desberdin ikusten du kalea, Andrade jaunak ikusten duen bezala. Adierazi du, bestalde, udaleko soldata ez dela gutxiago kobratzeko edo bezeroei ez kobratzeko, baizik eta udalarentzako lan egin dezan; izan ere, oso garrantzitsua da zehaztea zertarako erabili behar den diru publikoa eta nola kudeatu behar den.

equipo de gobierno el reparto de los medios económicos y personales de los grupos municipales. Admite que en una intervención anterior se ha equivocado y que se equivocará también muchas veces en el futuro e indica que los corporativos de EH Bildu también trabajan dentro y fuera del ayuntamiento y no únicamente contactando con las asociaciones sino que trabajan con las asosciaciones. Estima que desde EH Bildu la calle se ve de manera diferente a como la ve el señor Andrade. Manifiesta también que el sueldo del ayuntamiento no es para que cobre menos o no cobre a sus clientes sino para que se dedique a trabajar para el ayuntamiento ya que es muy importante definir a qué debe dedicarse el dinero público y cómo se gestione.

Eduardo Andradek esan du EH Bilduko bozeramaileak 66.000 euro kobratuko dituela eta etengabe izango dituela hanka-sartzeak, PPko bozeramaileak egingo ez dituen jarduketen bidez.

Eduardo Andrade replica que el portavoz de EH Bildu va a cobrar 66.000 euros y va a meter la pata de manera continua con actuaciones que el portavoz del PP no va a realizar.

Ibon Rodríguezek esan du EH Bilduko zinegotzi guztiek izango dituztela hanka-sartzeak, eta gogorarazi dio 66.000 euro kobratuko badituzte dela PPk hala itundu duelako EAJrekin, EH Bilduk ordainsariak % 25ean murrizteko planteatutako zuzenketari uko egin diotela.

Ibon Rodríguez replica que todos los concejales de EH Bildu meteran la pata y le recuerda que si van a cobrar 66.000 euros es porque el PP así lo ha pactado con el PNV, rechazando una enmienda de EH Bildu que planteaba reducir las retribuciones en un 25%.

Proposamena bozkatu da eta emaitza hau lortu da: aldeko 15 boto, PNV, PP, PSE-EErenak, eta kontrako 8, GUKenak eta EH Bildurenak eta 1 abstentzio, Ciudadanosena.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 15 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, 8 votos en contra, GUK, EH Bildu, 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz eta Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, gehiengoz honako hau erabaki da:

En consecuencia, y a propuesta de la Alcaldía-Presidencia, por mayoría se acordó:

**Lehenengoa**.- Iñaki Gamero Delgado zinegotzi jaunari baimenduko zaio modu bateragarrian egitea zinegotzi karguaren funtzioak, arduraldi esklusiboarekin, eta noizbehinkako abokatu jarduerak, baina 2015eko ekainaren 23an aurkeztutako eskaeraren baldintzak bete beharko ditu.

**Primero**.- Autorizar al Concejal D. Iñaki Gamero Delgado la compatibilidad entre las funciones del cargo de Concejal con dedicación exclusiva, con actividades ocasionales de ejercicio de la abogacía, en los términos de su solicitud presentada el pasado 23 de junio de 2015.

**Bigarrena**.- Baimenduari jakinaraziko zaio, aplika daitekeen legearekin bat etorriz, udalbatzako kide bati arduraldi esklusiboa aitortzeak eskatzen duela karguen zereginak lehentasunez egitea, erabaki honen bidez baimentzen diren bigarren mailako zereginak gorabehera. Eta, edonola ere, ezin izango diote kalterik eragin udalbatzaren dedikazioari.

**Segundo**.- Poner en conocimiento del autorizado que, de conformidad con la ley aplicable, el reconocimiento de la dedicación exclusiva a un miembro de la Corporación exige la dedicación preferente del mismo a las tareas propias de su cargo, sin perjuicio de las ocupaciones marginales que resultan autorizadas mediante el presente acuerdo, que, en cualquier caso, no podrán causar detrimento a su dedicación a la Corporación.

**Hirugarrena**.- Erabaki hau zinegotzi eskatzaileari legean agindu bezala jakinaraziko zaio, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**Tercero**.- Notificar en legal forma el presente acuerdo al Concejal solicitante, a los efectos oportunos.

Se incorpora Iñaki Gamero al salón de sesiones.

Se incorpora Iñaki Gamero al salón de sesiones.

Sale Eduardo Andrade del salón de sesiones.

Sale Eduardo Andrade del salón de sesiones.

**83.- EDUARDO ANDRADE AURRECOECHEA JAUNAREN BATERAGARRITASUNA ONARTZEA.**

**83.- RECONOCIMIENTO DE COMPATIBILIDAD DE EDUARDO ANDRADE AURRECOECHEA.**

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egin da eta emaitza hau izan da: aldeko 15 boto, PNV, PP, PSE-EErenak, eta kontrako 8, GUKenak eta EH Bildurenak eta 1 abstentzio, Ciudadanosena.

Tras darse lectura la propuesta se somete a votación con el siguiente resultado: 15 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, 8 votos en contra, GUK, EH Bildu, 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz eta Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, gehiengoz honako hau erabaki da:

**Lehenengoa**.- Eduardo Andrade Aurrrecoechea zinegotzi jaunari baimenduko zaio modu bateragarrian egitea zinegotzi karguaren funtzioak, arduraldi esklusiboarekin, eta noizbehinkako abokatu jarduerak, baina 2015eko ekainaren 23an aurkeztutako eskaeraren baldintzak bete beharko ditu.

**Bigarrena**.- Baimenduari jakinaraziko zaio, aplika daitekeen legearekin bat etorriz, udalbatzako kide bati arduraldi esklusiboa aitortzeak eskatzen duela karguen zereginak lehentasunez egitea, erabaki honen bidez baimentzen diren bigarren mailako zereginak gorabehera. Eta, edonola ere, ezin izango diote kalterik eragin udalbatzaren dedikazioari.

**Hirugarrena**.- Erabaki hau zinegotzi eskatzaileari legean agindu bezala jakinaraziko zaio, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du egun honetako zazpiak eta bost minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

En consecuencia, y a propuesta de la Alcaldía-Presidencia, por mayoría se acordó:

**Primero**.- Autorizar al Concejal D. Eduardo Andrade Aurrrecoechea la compatibilidad entre las funciones del cargo de Concejal con dedicación exclusiva, con actividades ocasionales de ejercicio de la abogacía, en los términos de su solicitud presentada el pasado 23 de junio de 2015.

**Segundo**.- Poner en conocimiento del autorizado que, de conformidad con la ley aplicable, el reconocimiento de la dedicación exclusiva a un miembro de la Corporación exige la dedicación preferente del mismo a las tareas propias de su cargo, sin perjuicio de las ocupaciones marginales que resultan autorizadas mediante el presente acuerdo, que, en cualquier caso, no podrán causar detrimento a su dedicación a la Corporación.

**Tercero**.- Notificar en legal forma el presente acuerdo al Concejal solicitante, a los efectos oportunos.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las diecinueve horas y cinco minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.